

Vital Kirolpass

Laudioko Gardea polikiroldegia
2023ko ekainak 10
11:30ean



Vital Fundazioak eta Laudioko Udalak jardunaldi bat antolatu dute herriko gazteen artean kirola sustatzeko, batez ere 6 eta 14 urte bitartekoen artean, eta, jende gutxik egiten baditu ere, herrian egiten diren kirolei ikusgarritasuna emateko.

Informazioa

Parte hartzen duten gazteek euren arteko harremanak estutzeaz gain, hainbat kirol modalitate praktikatzeko aukera ere izango dute: padela, tenisa, bola-jokoa, eskalada. Hockeya eta atletismoa.

Vital Fundazioak oinarrizko kirola sustatzeko egin duen apustuaren barruan kokatzen da ekimen hori, hain ezagunak ez diren diziplinak ezagutu eta egin ditzaten errazteko, aisialdi parte-hartzailea eta osasungarria sustatzeko eta gazteek kirola egiteari utzi ez diezaioten.

Jardunaldi honetan parte hartzen dutenek kirol zentroko arlo guztietatik pasatu beharko dute eta informazio gunean emango zaien pasaporte bat bete beharko dute. Bete eta jasotako leku berean entregatu ondoren, opari bana emango zaie.